

ZENBAKI IHESLARIAK

Bazen herri txiki batean neskatala bat. Baserri batean bizi zen. Bazituen behiak, ardiak, txakurrak, katuak, oiloak eta abar. Oso gustora bizi zen animalien artean, baina gustokoena arkatza hartu eta matematikako ariketak asmatzea zen. Eskolatik etorri eta segituan joaten zen bere gelara, zenbakien puzzleekin jolastera.

Egun batean konturatu zen zenbaki bat jartzen zuela eta joan egiten zitzaiola. Asperturik zeuden hainbeste ariketa egiten zituztelako eta leihotik ihes egiten zuten. Gehiketa bat jartzen zuen eta ihes egiten zuten.

Neskatala aspertu egin zen zenbakiak aurkitu ezinik: ohe azpian, mahai azpian, komunean, erloju gainean, lore azpian eta gauza askotan gordetzen ziren.

Bururatu zitzaion tximeletak harrapatzeko sare batekin zenbaki guztiak harrapatu eta kutxa batera sartzea denak. Pentsatuta bezala egin zuen. Lan handia eman zion, korrika alde batera eta bestera, eta gero oportetara joan zen.

Egun asko pasa ondoren etxera etorri zenean, kutxan begiratu zuen. Zenbaki guztiak han zeuden, asperturik eta neskatalari begira. Neskatalak galdetu zien:

- Nahi al duzue nerekin jolastu?
- Bai!!!- esan zuten.

Hainbeste egun pasa zituzten kutxan oso asperturik zeudela. Eta asko asko jolastu ziren.